

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2017 Foru Dekretua, martxoaren 7koa, aldatzen dituena Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren barruko basogintza laguntzen plana arautze duten oinarriak, ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, eta 2017rako laguntza lerro horren deialdia onartzen duena

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak onartu ziren; planaren barruan jasotzen dira Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak "nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" M04.3 azpineurrian eta "inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko" M08 neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak onetsi beharreko dekretu markoak ezarritako mugen barruan, hala nola programa horretan sartzen ez den eta "basoen kontserbazioa" deritzon neurria. Aipatutako foru dekretu horren bidez, 2016rako laguntza lerro horietarako deialdia ere onartu zen.

Deialdi hori ebatzitakoan, beharrezko jotzen da oinarri arautzaileko zenbait alderi zehaztea, haiek hobeto ulertu eta aplikatzeko.

Bestalde, 2016ko urriaren 2tik aurrera indarrean izateak urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, eta 2016ko urriaren 29tik aurrera indarrean izateak urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena, behartu egiten du oinarri arautzaile horiek aipatutako araudi berrira egokitzea.

Azkenik, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2017ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldaketa hauek onartzea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren eranskinean xedatutako basogintzarako laguntza plana arautzen duten oinarri-arauetan:

6. artikulua ("Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea") 3. paragrafoari beste ahalpaldi bat gehitzea. Hona hemen haren testua:

6.3. Inbertsioen kostu bateratua modulaturik ez dagoen kasuetan, onuradunak, eskaerarekin batera, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu, baldin eta diruz lagun daitezkeen ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago hori hornitzen edo ematen duten behar adina entitate. Kostuak apaltzeko printzipioari men eginez, dirulaguntza kalkulatzeko inbertsiorik ekonomikoena hartuko da kontuan.

Sektore publikoko kontratu Legearekin bat etorritik eta inbertsioen tipologia dela eta, kontratu txikiaz bestelako kontratazio prozedura baliatu behar duten erakundeek eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztu ahal izango dute, inbertsioa balioesteko. Esleipen zenbatekoari dagokion ehunekoa aplikatuz kalkulatu da laguntzaren zenbatekoa.

7. artikulua ("Gastu onargarriaren muga") 1. paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

7.1. Onuradun eta urte bakoitzeko, diruz lagun daitekeen inbertsioa edo inbertsioen batuketa, gehienez, 60.000 eurokoa izango da eta, gutxienez:

- orokorrekiko 2.000,00 eurokoa
- 1.000 eurokoa sastraka kentzeetan, mehazketetan, konifero eta hostozabal bakanketetan, koniferoen beheko adarren inausketan, hondarrak baztertzen ez diren hobetze mozketetan eta hondarren birrintze eta ezpaltzeetan, baldin eta jarduera eremua neurri bereko 2 hektarea baino gehiago bada.
- baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoetarako laguntzek ez dute gutxienerako mugarik izango.

1.3. 10. artikulua ("Eskaerak aurkezteko epea, era eta tokia") 2. paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

10.2. Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean, inbertsioaren xede diren lurren kokapenari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo administrazio prozeduran jasotako eraren batean aurkeztu beharko dira, horrek guztiak ezertan eragotzi gabe Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 16.4 artikuluan xedatutakoa, betiere eskatutako inbertsioari ekin baino lehen.

Ez dute bete beharko aurreko paragrafoan zehaztutakoa antolamendu planak eta basogintzarako kudeaketa jasangarrirako planak idazteko laguntzek. Horien idazketa eta, ondorioz, fakturazioa eskaera aurretikoa izan litezke.

1.4. 11. artikulua ("Izapidetzea") 2. paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

11.2. Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedarekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesatuak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

1.5. 12. artikulua ("Ebaztea eta jakinaraztea") 2. paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

12.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoa betez, gehienez, sei hilabete izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi dela esan nahiko du, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 25.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1.6. 18. artikulua ("Ez betetzeak") 1. eta 8. paragrafoak aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

15.1. Onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesari dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, ezarritakoari jarraikiz bidezkoak diren beste egintza batzuk gorabehera.

15.8. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, otsailaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

1.7. 16 artikulua (Araubide juridikoa) aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

16. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradunek otsailaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenean, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, dirulaguntzenean, eta hura aplikatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan araututakoa bete beharko dute, baita Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

1.8. 19. artikulua ("M08.1 Basotzea eta basoak sortzea" neurriko baldintza bereziak arautzen ditu) 2.1 paragrafoen hirugarren ahapaldia eta 2.3 paragrafoa aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

19.2.1 hirugarren ahapaldia: aldea batera 5 eta 20 hektarea bitarteko partikularren basoetan hazkunde ertain edo luzeko espezieak erabiliko dira, gutxienez, azaleraren ehuneko 10ean.

Aldea batera 20 hektarea baino gehiagoko basoetan bai partikularren basoetan bai baso publikoetan bertako espezie hostozabalak erabiliko dira, gutxienez, azaleraren ehuneko 10ean.

19.2.3. Intsinis pinuko landararik erabiliz gero basotzeak aurrera eramateko, landarea aukeratutako kategoriako eta goragoko kategoriako ugalketaren baso materialetik etorriko da edo legez baimendutako inportaziotik. Hazitegiek Euskal Herriko itsasertzeko edo mendietako landare ekoizpena ezin badute bermatu eskaerari aurre egiteko behar adinako kopuruan, laguntza ukatu ahal izango zaie jatorrizko erregio hori erabiltzen ez duten birlanaketei.

1.9. 22. artikulua ("M08.5 Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak" neurrian agiri bereziak ezartzen dituena) 3. paragrafoari ahapaldi bat gehitzea. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

Beste baten barruko lursailak eta lursail mugakideak direla eta, laguntza ordaintzeko baldintza hau beteko da: erakunde titularrak lursail horiek dagokion onura publikoko mendian sartzeko eskatzea.

1.10. Aldatzea 24. artikulua (M04.3 "nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitze azpiegituretako inbertsioak" neurrian laguntzen zenbatekoa ezartzen duena) 2.2 paragrafoa eta 24.4 paragrafoa, neurri horren harira laguntzak ematean lehentasunak ezartzen dituena. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

24.2.2. Mendi publikoetako azpiegiturei dagokienez, portzentajea ehuneko 70 izango da.

24.4. Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, honako lehentasun irizpideak ezartzen dira:

24.4.1. Lehentasunezkoak izango dira aparteko eta muturreko natura gertakariak kaltetutako azpiegiturek konpontzeko espedienteak.

24.4.2. Larre publiko eta komunalei lotutako azpiegituretarako proiektuei dagokienez, lehentasun hurrenkera ezarriko da ukitutako larreen hektarea kopururik handienaren arabera.

24.4.3. Baso pistei dagokienez, lehentasun hurrenkera ezarriko da ukitutako baso hektarea kopururik handienaren arabera.

24.4.4. Neurri horren arabera diruz lagundu daitezkeen jardueretako bat baino gehiago eskatuz gero, eskatzaileek berek adieraziko dute eskaeran horien arteko lehentasun hurrenkera.

Lehentasan horietan oinarrituta, talde independenteak ezarriko dira: lehenengo eta behin lehen lehentasan taldean sartutako jarduerak aztertuko dira eta gero, kreditu nahikorik badago, gainerako taldeak aztertuko dira, harik eta den kreditua agortu arte.

Taldeek hurrengoek baino lehentasan handiagoa izango dute. Talde batentzako gordetako kreditua agortzen bada, ukatu egingo zaie laguntza talde bereko eta hurrengoetako gainerako jarduerari.

Kreditu erabilgarria agortzen den lehentasan taldeari dagozkion laguntzak emateko, aurretik aipatutako 24.4.2 eta 24.4.3 artikuluetan ezarritako irizpideak erabiliko dira. Puntuetan berdinke-tarik badago, inbertsio txikiak izango du lehentasuna.

Jarduera bakar baterako eskatzen bada laguntza, lehen lehentasan taldekotzat joko da.

Balorazioan berdinketarik gertatuz gero, funts txikiagoko sustatzaileek bultzatutako proiektuek lehentasuna izango dute funts handiagoko sustatzaileek bultzatutakoan aldean, betiere honako hurrenkera honi jarraituz: nekazaritzan edo basogintzan diharduen pertsona, nekazaritzan edo basogintzan diharduten pertsonen taldeak, mankomunitateak edo administrazio batzarrak, udalak.

Bigarrena. Basogintzarako 2017ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- M08.1. Basotzea eta basoak sortzea.
- M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
- M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.
- M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.
- M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso ahalmena hobetzen inbertitzea.
- M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.
- Basoen kontserbazioa.

Eskaerak aurkezteko epea: 40 egun ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kreditu erreserbak: Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastu aurrekontuaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

- 40.1.06.45.00.76.2.90.04 “Mendi publikoetako laguntzak”

544.072,00 euro (144.072,00 euro 2017an eta 350.000,00 euro 2017an) mendi publikoetan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta basoak sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso ahalmena hobetzen inbertitzea eta M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

50.000,00 euro 2018an, “Basoen kontserbazioa” izeneko neurri nazionalari dagozkion laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.00.7.6.2.90.03 “Mugaketak eta mugarritzeak”: 202.853,00 euro (52.853,00 euro 2017an eta 150.000,00 euro 2018an), “Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak” M08.5. neurriko laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.00.7.8.0.00.02. “mendi partikularrentzako dirulaguntzak”:

441.857,00 euro (141.857,00 euro 2017an eta 300.000,00 euro 2018an) titulartasun partikularreko mendietan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta baso azalera sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo edo baso ahalmena hobetzen inbertitzea.

Aipatutako kredituak zenbateko gehigarrien bidez handitu ahal izango dira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegiak 58. artikuluan ezartzen dituen mugen barruan, bai eta aurrekontuko partidaren edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu sailean kreditu gehikuntzarik izan bada, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako, eta zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabide horietan erabiliko da, honako dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Seigarrena. Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2017ko martxoaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO